



**21/2003 GOMENDIOA, UZTAILAREN 1EKOA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN NEKAZARITZA ETA INGURUMEN SAILARI EGINA, ARRANTZA-BAIMENENGATIK PREZIO BERBERAK JAR DITZAN FEDERATUENTZAT ETA FEDERATU EZ DIRENENTZAT.**

**Aurrekariak**

1. Erakunde honetan kirol arrantzale baten kexa-idazkia jaso genuen; kolokan jartzen zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren jokaera, tratu ezberdina ematen baitie arrantzale federatuei eta federatu ez direnei, izan ere, oro har ezarritakoak baino prezio baxuagoak ordaintzen dituzte Federazioko kideek arrantza-baimenengatik.
2. Gai horretaz egin genion informazio-eskaerari emandako erantzunean, Nekazaritza eta Ingurumen Sailak ez zuen berariazko arrazoirik eman. Hauxe baino ez zuen adierazi *"uste baitugu horrela kirol arrantzaleek -arrantza elkarteetan eta Federazioan elkartuta- osatutako kolektiboaren kudeaketari laguntzen zaiola"*.

**Gogoetak**

1. Tasen zenbatekoak balioztatzeari buruz, urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauak -Gipuzkoa Lurralde Historikoko Tasak eta Prezioak arautzekoak-, 8. artikuluan, bereizketak egin daitezkeela dio, ordaindu behar duten pertsonen ahalmen ekonomikoan oinarrituz; eta 18. artikuluan, beste arrazoi batzuetan oinarritutako salbuespen edo hobariak egiteko edozein bide ixten du.

Prezio publikoei dagokienez, Foru Arau beraren 25. artikuluan agintzen da jarduerak burutzeak edo zerbitzuak emateak sortzen dituen diru-kostuak ordaintzeko moduko prezioak jarriko direla gutxienez, edo zerbitzu horiek eragindako erabilgarritasunaren parekoak. Arau berean aurreikusten denez, hala egiteko arrazoi sozialak, ongintzazkoak, kulturazkoak edo interes publikokoak daudenean, aurreko parametroetatik beherako prezio publikoak ipini ahal izango dira, aldez aurretik aurrekontuan beharrezko neurriak hartuz, lagundutako prezioaren zati bat ordaintzeko.

Egoera horretan, eta arrantza esparruetarako baimenengatik administrazioak eskatzen duen ordainaren (tasa edo prezio publikoa) kalifikazio juridikoa dela eta sor litezkeen eztabaidak alde batera utzita, gure iritziz, kasu honetan ez dago inolako arrazoirik (ahalmen ekonomiko, gizarte, ongintza, kultura edo



interes publikoari buruzkorik) arrantzale federatuei prezio baxuagoa ezartzea arrazoi bidez zurituko duenik.

2. Legearen aurreko berdintasun printzipioak honako betebeharrak ezartzen die herri-agintariei: izatez berberak diren egoeretan, tratua bera ematea. Bi pertsonen tratua ezberdina ematea berdintasunaren printzipioarekin bat datorrela onar dadin, ezinbestekoa da arrazoi objektibo eta bidezkoa izatea. Horrela, Konstituzio Auzitegiak bere doktrinan behin eta berriz adierazi duenez, neurri bereizle bat konstituzioaren araberakoa ote den jakiteko, honako baldintzok betetzen dituen ikusi behar da:

- Ea neurri horren bidez lor daitekeen erdietsi nahi den helburua (egokitasunezko iritzia).
- Gainera, ea neurria beharrezkoa den, hau da, ea ez dagoen neurri zuzurragorik helburu hori eraginkortasun berberaz lortzeko (beharrari buruzko iritzia).
- Ea neurritzkoa edo orekatua den, alegia, kolokan dauden beste ondasun edo balore batzuei kalte egin baino gehiago, interes orokorrari on egiten dion (neurritzotasun edo proportzionaltasunezko iritzia).

Aztertzen ari garen kasuan, administrazioak ez du inolako arrazoirik eman hiru baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko, nahiz eta kontu hori espresuki azaldu genuen informazio-eskaeran.

3. Elkartzeko eskubidearen gainean -Konstituzioak berariaz aitortzen du eskubide hori, 22. artikuluan-, gogorarazi beharra dago eskubide hori bere ikuspegi positibotik nahiz negatibotik hartu behar dela kontuan, bere baitan biltzen baititu elkartzeko eskubidea zein ez elkartzekoa. Horrela, Konstituzio Auzitegiak hauxe adierazi zuen 67/1985 Epaian: *"la libertad de asociarse supone la superación del recelo con que el Estado liberal contempló el derecho de asociación, y la libertad de no asociarse es una garantía frente al dominio por el Estado de las fuerzas sociales a través de la creación de Corporaciones o asociaciones coactivas que dispusieran del monopolio de una determinada actividad social"*.

Ildo beretik, eta -gure ustez- bereziki garbi mintzo da 3/1988 Legea -gure autonomia erkidegoko elkarteak arautzekoa-, 2.3 artikuluan:

"...



3. *Bazkun bateko kide izatea ez da inoiz herri-agintaritzagandikako bereizkeriaren zio izango, eta ez du horien begipenik edo horiengandikako onurapiderik ekarriko.*" (sic)

Beraz, agerikoa dirudi gure legeriak debekatu egiten duela elkarteko kideentzat eta kide ez direnentzat tarifa ezberdinak jartzea, kideen aldeko tratua eragiten baitu jokaera horrek.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bertako Arrantzako Lurralde Federazioak sinatutako hitzarmenaren arabera, azken horri esleitzen zaio Gipuzkoako arrantza-esparruen kudeaketa. Hitzarmen horrek zera dio bigarren baldintzaren f) atalean:

*"El dinero recaudado por la adjudicataria, en concepto de permisos, se utilizará en sufragar los gastos ocasionados por la organización y la gestión de los cotos. En caso de que se obtuviera algún remanente, se utilizará para la provisión de fondos para la temporada siguiente y, en caso de persistir el superávit, en la conservación y mejora de los ríos, de acuerdo con el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente".*

Hortaz, arrantza-esparruen baimenengatiko zerga-bilketa baldin bada, hain justu, Federazioak duen finantzaketa-bide bakarra, zera pentsa daiteke, hasieran behintzat: zenbat eta handiagoa izan zerga-bilketa, orduan eta aukera gehiago izango lituzkeela Federazioak bere antolaketa eta kudeaketa hobetzeko. Baina helburu horrek -Gipuzkoako Aldundiak aipaturiko bakarra- ez du zurriz, gure iritziz, arrantzaleekiko tratua ezberdina ezartzea, alderantziz baizik; izan ere, arrantza federatuek federatu ez direnek baino ekarpen txikiagoa egiten badute antolaketa eta kudeaketa gastuetarako, azkenean biltzen den diru-kopurua, ezinbestean, berdintasunezko irizpideak jarraituta lortuko zena baino txikiagoa izango da, eta hori guztia iritsi nahi diren helburuen kalterako da.

Bestalde, arazoak bere horretan jarraituko luke -gure ustez-, nahiz eta Federazioak, baimenak ordaintzerakoan, bere kideen diru-ekarpen txikiago hori berdindu, bere kideen kuoten zati bat erabiliz -diferentziari dagokion- administrazio eta kudeaketa gastu horien ordainketa osatzeko. Izan ere, behar bezala egiaztatu beharko litzateke balizko diru-laguntza hori, eta, gainera, gauzatuko balitz, Aldundiaren fiskalizaziotik kanpo geratuko litzateke eta, azken batean, orduan ere ez lirateke bermatuko ez berdintasun printzipioa, ez elkartzeko askatasunarena.



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -  
erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**21/2003 GOMENDIOA, uztailaren 1ekoa, Gipuzkoako Foru  
Aldundiaren Nekazaritza eta Ingurumen Sailari egina**

Arrantza-baimenengatiko oraingo prezioak alda ditzala, dagokion  
Federazioko kideen alde dauden desberdintasunak kenduz.